MAIATZA-EKAINA / 2024

# KULTUR AGENDA







Aitzoain
Añezkar
Artika
Ballariain
Berriobeiti
Berriogoiti
Elkarte
Larrageta
Lotza
Oteitza



# BERRIOBEITI



**Azaleko argazkiak:** “Ezkaba” (26-05); Euskararen Jaia (05/21etik 26ra); “Emakumea eta memoria Nafarroan”, Iñaki Portok ondua (05/20tik 06/9ra); Kirolaren Eguna (05-11); Txikoni buruzko dokumentala eta liburuaren aurkezpena (05-8).

Argitaratzailea: Berriobeitiko Udala
L.O.: NA 253-2015
Doan banatzen da

Casa de Cultura
MARIA DE MAEZTU
Kultur Etxea

# BERRIOBEITIKO KULTUR AGENDA

**MAIATZA-EKAINA/2024**

Editorea: Berriobeitiko Udala
Doako zabalpena

## ›› OHARRAK

**PUNTUALTASUNA**
Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

**SOINU-SEINALEAK**
Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

**GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK**
Debekatuta daude.

**JANARIAK ETA EDARIAK**
Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

**ITZULTZEAK**
Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

**SARRERAK**
Zenbakidun sarrerak.

## ›› TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko**.

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

**LEIHATILAN**
(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi aurreko ordubete lehenagotik.

**ALDEZ AURRETIK**
**www.berrioplano.es** webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara.

## ›› KULTUR EKIPAMENDUA

**KULTURA ZERBITZUA**
Udaletxean **Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** cultura@berrioplano.es

**MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA**
Iturribidea, 1. Artika.
**Tel:** 948 38 32 54
**Kafetegi-Taberna**
**Tel:** 948 78 31 57

**EUSKARA ZERBITZUA**
Udaletxean
**Tel:** 948303129 / 634515384
**Posta elektronikoa:** euskara@berriobeiti.eus

**KIROLA ETA GAZTERIA ZERBITZUA**
Udaletxean **Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** deporteyjuventud@berrioplano.es

**LIBURUTEGI PUBLIKOA**
Maria de Maeztu Kultur Etxean
**Udako ordutegia :** 8:30-14:30 (ekainak 17-irailak 13)
**Tel:** 948 38 26 22
**Posta elektronikoa:** bibliarc@cfnavarra.es

**ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA**
**BERRIOBEITI**
Nuestra Señora de la Purificación, 11.
**Ordutegia:** 10:00etatik 22:00etara.
**Tel:** 948 91 04 23 (kafetegi-taberna)

**ARTIGUNE I**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

**ARTIGUNE III**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

**ORREAGA MUSIKA ESKOLAKO PATRONATUA**
María de Maeztu Kultur Etxea
**Tel:** 616 72 52 18
**Posta elektronikoa:** orreagamusika@gmail.com

**KONTZEJU ETXEAK**

**AITZOAIN**
Oronsuspe auzoa, 3

**AÑEZKAR**
San Andres, 6
**Tel:** 618 77 84 61

**ARTIKA**
Kontzeju Etxea San Marcial, 9
**Tel:** 948 38 37 93
"María Domínguez" Gizarte-Etxea María Domínguez, 3
**Tel:** 948 38 37 93

**BALLARIAIN**
San Pedro, z/g

**BERRIOGOITI**
Santa Eulalia, 39
**Posta elektronikoa:** concejodeberriosuso@gmail.com

**BERRIOBEITI** Kale Nagusia, 2

**ELKARTE** Purificación, 16

**LARRAGETA**
San Esteban, z/g
**Posta elektronikoa:** concejo.larragueta@gmail.com

**LOTZA** San Joan, z/g
**Tel:** 690 68 68 50

**OTEITZA** San Joan, 6
**Tel:** 651 65 83 14

## ›› UDAKO HIRI KANPALDIAK HAURRENTZAT

**IZEN-EMATEA**
MAIATZAK 2, 3 eta 6, erroldatuendako soilik



948 012 012
Infolocal

**Kanpaldien txandak:**
**1. TXANDA:** ekainaren 24tik uztailaren 5era
**2. TXANDA:** uztailaren 15etik 31ra
(25 eta 26, jaiegunak)
**3. TXANDA:** abuztuaren 1etik 14ra
(15 eta 16, jaiegunak)
**4. TXANDA:** abuztuaren 19tik 30era
**Adina:** 2012tik 2019ra jaiotakoak
(biak barne)

**Prezioa TXANDA bakoitzeko:**
58 € por participante (pago con tarjeta)

Berriobeitiko Udalak eskainitako hiri kanpaldiak Haur Hezkuntzako 2. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarte eskolatuak dauden haurrendako dira, hau da, izena ematean ikasmaila horietako batean eskolatuak egon behar dute; beraz, 2012tik 2019ra bitarte jaio diren haurrentzat dira (biak barne).
Kanpaldiak gune ludikoak dira, familia eta lana bateragarri egiteko dauden beharrei erantzuteko; era berean, Zendeako haurrendako josteta eta garapen guneak sortu nahi dituzte hainbat gai lantzeko, aldi berean balioak eta sormena sustaturik.

**Kontsultatu ordutegiak, egoitzak eta hizkuntzak udal webean.**

## ›› ORREAGA MUSIKA ESKOLA

**KANPO MATRIKULAZIOA**
MAIATZAK 27 – EKAINAK 7

Argibideak eta kontzertu agenda:
**www.escuelademusicaorreagamusikaeskola.com**



## ›› JANTOKI BEKAK. 2024-2025 IKASTURTEA

**ESKAERAK** EKAINAK 1 - 30

Informazio guztia udal webean egonen da eskura egun batzuk lehenago (**www.berrioplano.es)**

## 03 OSTIRALA

### IBILALDI OSASUNGARRIA



## Bizitza aktiboa

"Ibilaldi osasungarriak" programa, hilabete bakoitzeko lehen ostiraletan.

**Lotzako Kontzeju Etxetik**
**Ordua:** 10:00
**Izen-ematea:** ez da eman beharrik

## 05 IGANDEA

### HAUR ANTZERKIA

## "Anbotoko Mari"

LOGELA MULTIMEDIA



**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Publikoa:** 3 - 10 urte
**Ordua:** 18:00
**Prezioa:** 5,50 € aurrez / 6,50 € leihatila
**Antolatzailea:** Nafarroako Antzoki Sarea
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua
**Zikloa:**

Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

Gari lagunekin haserretu eta bakarrik abiatuko da Anbotora. Mariren haitzuloan sartu, harri magikoa lapurtu eta alde eginen du, nahiz eta ahots batek ohartarazten dion harria dagoen lekuan utzi behar duela. Anbotoko Mari atzetik abiatuko zaio mendirik mendi, eta Garik harri magikoa erabiliko du bere burua defenditzeko. Marik Tartaloren, iratxoen eta beste jeinu batzuen laguntza eskatu beharko du harria berreskuratzeko.

## 08 ASTEAZKENA

### ALEX TXIKON: DOKUMENTALA ETA LIBURUAREN AURKEZPENA

## "Mundu bat motxilan"



**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 19:30
**Sarrera:** doan, aurrez **www.berrioplano.es** webean erreserbatuta (sarreren salmenta) edo ordubete lehenago edukiera bete arte

Dokumentalaren emanaldia (53´ euskara/ele bitan), Unai Ormaetxeak Alex Txikon mendigoizaleari buruz ondutako liburuaren aurkezpena eta liburuaren sinadura (ekitaldi aurretik eta ondotik erosgai).

## 11 LARUNBATA

### KIROLAREN EGUNA




**ARTIKA**

**Kirol pista**

**11:00-13:30**
Eskalada-horma eta puzgarriak

**11:00-13:00**
Kirolean hasteko jolasak, 5 urtetik hasita, udalerriko kluben eskutik: patinajea eta atletismoa

**16:30-20:00**
Gazteendako IV. 3x3 txapelketa azkarra. 10-14 urteko gazteentzat

**Artika Berriko Plaza**

**11:30**
Zumba masterclassa Artikako eta Berriobeitiko monitoreekin. **Zatoz!**

**12:45**
Masterclasss de Drum´s Alive **Ezagutu!**

**13:00**
Berriobeitiko kirol sariaren banaketa

**BERRIOBEITI**

**Pilotalekua**

**17:30-20:30** Artikako eta Berriobeitiko **udal Kirol Eskolen** erakustaldia. Eskolak: pilota, hiri dantzak, gimnasia erritmikoa, judoa, Txiki Zumba, Takwondoa, Kick Boxing, balleta...











## 12 IGANDEA

### ONGINTZAZKO ERREMONTE PARTIDUA



**Berriobeitiko pilotalekua**
**Ordua:** 11:30
**Sarrera:** dohaintza 5 €, ADANO-Nafarroako Haur Minbizidunen Elkartearentzat dirua biltzeko (ADANO)
**Laguntzailea:** Berriobeitiko Kontzejua

## Maiatzak 20 - Ekainak 9

### ARGAZKI ERAKUSKETA

# "Emakumea eta memoria Nafarroan"

IÑAKI PORTO



**Erakusketa gela. María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta asteburuak, Kultur Etxean jarduerarik bada
**Antolatzailea:** Nafarroako Memoriaren Institutua - Nafarroako Gobernuaa




Erakusketak 1936ko kolpe militarraren ondorioak jasan zituzten emakumeen memoria berreskuratu nahi du Nafarroan. Emakumeok beren senideak desagertzen ikusi zituzten errepublikaren legezkotasuna defendatzeagatik. Emakumeok, erregimen frankistak inposatutako zirkunstantziak zirela eta, ikusi zuten nola derrigortu zituzten haien amak ahalegin handiagoa egitera, familiak aurrera ateratzeko. Haiek eutsi diote tinko senideen oroimenari, erregimen frankistaren aurka egin zutenen bizitza moztu zuen basakeriaren zentzugabekeria transmitituz, bai eta -gizartearen itsasargi gisa- errespetua, ekitatea, berdintasuna, elkartasuna eta gisako balioak bultzatzeko beharra ere. Memoria eta balio horiek erakusten zaizkie gure gazteei Memoria duten Eskoletan, jakitun baitira gaur egun giza eskubideak urratzen dituzten prozesu ugari daudela munduan, eta horiek saihesteko konpromiso soziala eskatzen dutela.

Euskararen jaia
BERRIOBEITIKO ZENDEA | CENDEA DE BERRIOPLANO

## MAIATZAK 21, asteartea



### AÑEZKAR

**EUSKARAREN JAIARI BURUZKO TAILERRA: TXAPAK ETA ESKULANAK + TXOKOLATE-JANA**
**Kontzeju Etxea**
**Ordua:** 17:30
**Parte-hartzaileak:** adin guztiak
**Sarrera:** librea

### ARTIKA

**MINTZODROMOA**
**Artigune 3 (Artika Berri)**
**Ordua:** 19:00
**Parte-hartzaileak:** euskarazko mintzamena landu nahi duten guztientzat
**Sarrera:** librea

## MAIATZAK 22, asteazkena



### AITZOAIN

**FILMA + SOLASALDIA**
**Kontzeju Etxea "Bizkarsoro"**
**Ordua:** 19:00
**Publikoa:** 12 urtetik gora
**Sarrera:** XX. mendean, fikziozko herri batean girotua. Euskaldunek pairatutako zapalkuntzaz mintzo da.
**Hizkuntza:** euskaraz, azpidatziak gaztelaniaz

## MAIATZAK 23, osteguna

### ARTIKA (Artika Berri)

**KARRIKADANTZA ORREAGA MUSIKA ESKOLAKO TRIKITIXA TALDEAREKIN**
**Ordua:** 18:45

**PINTXOPOTEA AMETZA ABESBATZAREKIN**
**Ordua:** 20:00

## MAIATZAK 24, ostirala

### ARTIKA (Artika Berriko plaza)

**KOREOGRAFIAK "GOAZENKIN DANTZAN" UDAL IKASTAROKO IKASLEEKIN**
**Ordua:** 17:30















## MAIATZAK 25, larunbata

### ELKARTE

**11:45**
Artikako eta Berriogoitiko erraldoiak, dantzariak eta Zendeako txaranga

**12:30**
Koadrilen arteko herri kirol txapelketa bertsolariek lagunduta

**14:00**
Haurrendako bazkaria.
10 € (ikusi oharrak)

**14:30**
Helduendako bazkaria
18 € (ikusi oharrak)

**14:30 - 17:00**
Tailerrak eta jolasak haur eta nerabeendako

**16:30**
Kantu tradizionalen Kantuz emanaldia, Andoni Mitxelenarekin

**17:00**
Talo tailerra

**19:00**
Magia eta umore ikuskizuna Sergio de Andresen eskutik

**18:30-21:30**
Dantzaldiak Gabezin-ekin





## MAIATZAK 26, igandea

### ELKARTE

**ORIENTAZIO PROBA**
**Kontzeju Etxetik**
**Harrera:** 11:00-11:30
**Irteera:** 11:30
**Iritsiera:** 13:00. Amaiera eta otamena
**Izen-ematea:** taldeka (1-5 parte-hartzaile), maiatzaren 15etik 24ra, 948 012 012 telefonoan eta egunean bertan jarduera hasi aurretik

Proban aurkitu beharreko mugarriek Zendeako historia soziolinguistikoarekin dute zerikusia (toponimia, okonimia)
Talde irabazleak Nafarroako gazta bat jasoko du.
Probaren ondotik, otamena eskainiko zaie Elkarten parte-hartzaile guztiei

## EUSKARAREN EGUNARI BURUZKO OHARRAK

### KOADRILEN ARTEKO HERRI KIROL TXAPELKETA

**Adina:** 12 urtetik aurrera
**Osaera:** taldeak gutxienez 4 kide izanen ditu eta mistoa izan behar du
**Izen-ematea:** Euskara zerbitzua
euskara@berriobeiti.eus / 634 515 384
**Oharra:** izena aurrez edo egunean bertan eman daiteke, baina talde parte-hartzaileen kopurua mugatua izanen da
**Saria:** tokiko produktuz beteriko saskia

### BAZKARIA

**Txartel salmenta:** udal bulegoetan (Berriobeiti eta Artika Berri), maiatzaren 9tik 17ra
**Menua:** sagardotegiko menua (arraina ere aukeran). Xehetasunak udal webean
**Behar bereziak:** jakinarazi txartelak erostean

### JOAN-ETORRIKO AUTOBUSA Doako zerbitzua jaira joateko

**Joaneko bidaiak:** 11:00 eta 13:00
**Ibilbidea:** Artika / Artika Berri / Lotza / Añezkar / Aitzoain / Berriobeiti / Berriogoiti / Ballariain / Elkarte
**Itzulera:** 18:30 eta 21:45
**Ibilbidea:** Elkarte / Ballariain / Berriogoiti / Berriobeiti / Aitzoain / Añezkar / Lotza / Artika Berri / Artika

## 24 OSTIRALA

**LIBURU AURKEZPENA**

**Berriogoitiko Kontzeju Etxea**
**Ordua:** 19:00 **Sarrera:** librea

### “La peña fue testigo”

ANA CÁRCAR

Nafarroako Erriberan gertaturiko sarraski ideologikoak emakume eta haur aunitzen bizitza hautsi zuen betirako, 1936an. Ana Carcar antropologoak begirada gerraondo latz hartan pausatu eta gizonik gabeko etxe haien egoera azaldu digu, goseak eta beldurrak larriturik bizi zirenean. Urte sail luze-luzean ebatsitako ahotsa itzuli die liburuak.




## 26 IGANDEA

**ANTZERKIA**

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**Publikoa:** heldua **Ordua:** 19:00
**Sarrera:** 7,50 € aurrez / 8,50 € leihatila
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua

### “Ezkaba”

ILUNA PRODUCCIONES



Espetxearen gaineko oroimena han egondako pertsona bakoitzarena da, haien familiena; han dago haien historia, han haien itxaropenak eta ilusio zapuztuak. Presoa zenbaki hutsa da, bizkar busti bat, Manterola txokolatearen puskatxo bat, ur zikineko pote bat dilista edo txitxirio ale batekin, lurreko harizpiz osaturiko zigarro bat hamabi lagunen artean partekatua, zeru zati bat, matxinada bat, gutun moztu bat; eta heriotza bat, dela tiro baten eraginez, dela abitaminosiak edo “bihotzekoak” eraginda. Paretek eta hezurrek baizik ez diraute. Baina, eta hormak eta hildakoak mintzatuko balira?
Espetxe frankistaren bizi-baldintzei eta ihesari buruzko lana da eta, era berean, emakumeek ehundutako elkartasunezko sareei, laguntasunari, gizatasunari eta itxaropenari buruzkoa.

# PROGRAMAZIOA EKAINA 2024

## 01 LARUNBATA

DENBORALDI BUKAERAKO JAIA

### Gazte gunea

Zabalik dagoen azken egunean ederki ospatuko dugu, jardueraz beterik eta askari goxoa eginez.

**info +:** #berrioplanodeporteyjuventud

Artigune III (Artika)
**Ordua:** 17:30 **Adina:** 12 urtetik aurrera



## 01 LARUNBATA

JAIALDIA

### "Susorock "

"Susorock" jaialdiaren lehen edizioa. 5 banda arituko dira hainbat sari irabazi nahian. Parte hartzeko oinarriak Kontzejuaren eta ekitaldiaren sare sozialetan topatuko dituzue (**@berriogoiti_berriosuso** y **@susorock_fest**.). Gainera, zozketak eta sorpresa asko izanen dira kontzertuetan.

Berriogoitiko Kontzejua
**Kontzertuak:** 17:00 - 22:00
**DJ:** 22:00 - 3:00




## 05 ASTEAZKENA

IKASTURTE BUKAERAKO KONTZERTUAK

### Orreaga Musika Eskola

Hastapen taldeak eta abesbatza.

María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)
**Ordua:** 18:30
**Sarrera:** doan

## 07 OSTIRALA

IBILALDI OSASUNGARRIA



### Bizitza aktiboa

"Ibilaldi osasungarriak" programa, hilabete bakoitzeko lehen ostiraletan.

Kultur Etxetik (Artika)
**Ordua:** 10:00
**Izen-ematea:** ez da eman beharrik

## 7, 8, 9 OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA

JAIAK

### Berriobeiti

## PROGRAMAZIOA EKAINA 2024

**12** ASTEAZKENA

IKASTURTE BUKAERAKO KONTZERTUAK

### Orreaga Musika Eskola

Azken kontzertua.

María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)
**Bi saio:** 18:00 eta 19:30
**Sarrera:** doan

**15, 16** LARUNBATA, IGANDEA

JAIAK

### Ballariain

**15** LARUNBATA

BERRIOBEITIKO III. FRONTENIS TXAPELKETAKO FINALAK

Hainbat hilabetez lehian aritu eta gero, txapelketaren III. edizioan parte hartu duten 20 bikoteen arteko txapelduna nor den jakinen dugu. Bukatzeko, otamena.

Añezkarko pilotalekua
**Ordua:** 20:00



**21, 22, 23** OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA

JAIAK

### Oteitza

## PROGRAMAZIOA UZTAILA 2024

**05** OSTIRALA

IBILALDI OSASUNGARRIAK



### Bizitza aktiboa

“Ibilaldi osasungarriak” programa, hilabete bakoitzeko lehen ostiraletan.

Berriobeitiko Kontsultategitik
**Ordua:** 10:00
**Izen-ematea:** ez da eman beharrik